

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik, 2021eko abendua

Euskal AEko landetxe eta apartamentu turistikoetako sarrera kopuruak % 80 inguru egin du gora 2021ean, 2020arekin alderatuta

Okupazio-maila, bai apartamentuetan, bai landetxeetan, logelaka, handiagoa izan da 2021eko abenduan 2019ko abenduan baino –COVID-19aren aurretik–

Euskal AEko **landetxeetan, 2021eko urteko balantzean**, hobekuntza handia ikusi da okupazioaldagaietan, 2020. urtearen aldean. 123.935 sarrera eta 348.836 ostatu-gau izan dira; beraz, urtean, % 81.8ko eta % 69.8ko hazkundeak izan dira, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

2021. urte osoan, ez dira guztiz berreskuratu 2019an erregistratutako okupazio-balioak, COVID-19aren aurretik erregistratutakoak; orduan kontabilizatutako sarreraren % 74,2ra eta ostatu-gaueko % 80,8ra iritzi dira.

Araba izan da 2021ean urteko hazkunderik handiena izan duen lurraldea, bai sarreren kopuruan (% 112,6), bai ostatu-gauen kopuruan (% 88,4). Bizkaian, sarreretan % 87,7ko igoera egon da eta, ostatu-gauetan, % 73,6koa. Gipuzkoan, azkenik, 2021ean sarrerak eta ostatu-gauak aurreko urtean baino % 69.9 eta % 63.3 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Atzerriko bisitariak Euskal AEko mota horretako establezimenduetako sarrera guztien % 10,2 izan dira 2021ean. Ehuneko hori pixka bat handiagoa da 2020an lortutakoa (% 9,1) baino, baina 2019an erregistratutako atzerritar jatorriko bisitarien ehunekoa (% 20,4) baino askoz txikiagoa.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. 2021

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2021	2021 / 2020 (%)	2021	2021 / 2020 (%)	2021	2020	2021	p.p. *	2021	p.p. *
EUSKAL AE	123.935	81,8	348.836	69,8	2,81	3,01	23,1	4,7	26,4	3,0
Estatukoak	111.281	79,5	318.335	70,7	2,86	3,01	-	-	-	-
Atzerritarrak	12.654	104,9	30.501	61,3	2,41	3,06	-	-	-	-
Araba/Álava	23.543	112,6	56.928	88,4	2,42	2,73	16,1	4,6	19,0	4,0
Estatukoak	22.034	106,0	53.796	82,0	2,44	2,76	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.509	295,0	3.132	369,6	2,08	1,75	-	-	-	-
Bizkaia	35.263	87,7	99.082	73,6	2,81	3,04	23,0	5,1	26,4	3,0
Estatukoak	31.608	82,8	89.954	70,0	2,85	3,06	-	-	-	-
Atzerritarrak	3.655	145,6	9.128	118,4	2,50	2,81	-	-	-	-
Gipuzkoa	65.129	69,9	192.826	63,3	2,96	3,08	26,5	4,4	30,0	3,0
Estatukoak	57.639	69,4	174.585	67,8	3,03	3,06	-	-	-	-
Atzerritarrak	7.490	73,9	18.241	29,7	2,44	3,27	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentaiezkoko puntuko aldea

Data 2022ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeetako batez besteko egonaldia 2,81 egunekoa izan da 2021ean, 2020an erregistratutakoaren (3,01) egunen azpitik, baina 2019an batez beste izandako 2,58 egunen gainetik dago.

Okupazio-maila % 23,1era igo da plazen arabera neurtuta, eta % 26,4ra gelen arabera neurtuta. Euskal AEko landetxeetan 2020an egon diren okupazio-mailak direla eta, ehuneko 4,7 eta 3,8 puntu igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**en **2021eko urteko balantz**ean ere hobekuntza nabarmena izan da, 2020aren aldean. Guztira, 80.127 sarrera eta 359.224 ostatu-gau izan dira urte osoan, eta, 2020aren aldean, urteko gehikuntzak % 76,0koak eta %75,3koak izan dira, hurrenez hurren.

Okupazio-zifra horiek 2019an izandakoekin alderatuz gero, egiaztatzen da 2021ean erregistratutako sarrerak 2019an erregistratutako % 89,0 direla. 2021ean izan diren ostatu-gauen kopurua, berriz, handiagoa da, 2019an izandakoen % 106,5. Esan beharra dago azken bi urteotan mota horretako establezimenduen eskaintza hazi egin dela Euskal AE osoan –2019. urteko egunen batean– 787 apartamentu zeuden eskuragarri eta, pasa den 2021. urtean, 1.303.

Lurralde historikoak direla eta, 2021ean jasotako sarrerak eta ostatu-gauak, 2020an jasotakoekin alderatuta, beste intentsitate batez areagotu dira. Bizkaiko apartamentu turistikoetako sarrera guztiak bikoiztu baino gehiago egin dira aurreko urtearen aldean: % 56,4 Gipuzkoan eta % 36 Araban. Ostatu-gauen kopuruaren hazkuntzari dagokionez, aldea are handiagoa izan da: Gipuzkoan % 132,5, Bizkaian % 63,9 eta, azkenik, Araban % 25,1.

Atzeritarrak Euskal AEn mota horretako establezimenduetako sarrera guztien % 19,4 izan dira 2021ean. Ehuneko hori pixka bat handiagoa da 2020an izandakoa (% 18,3) baino, baina 2019an erregistratutako atzeritar jatorriko bisitarien ehunekoa (% 33,0) baino txikiagoa.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-beste egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2021	2021 / 2020 (%)	2021	2021 / 2020 (%)	2021	2020	2021	p.p. *	2021	p.p. *
EUSKAL AE	80.127	76,0	359.224	75,3	4,48	4,50	28,1	5,5	51,5	3,5
Estatukoak	64.592	73,8	276.628	71,4	4,28	4,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	15.535	86,0	82.596	89,6	5,32	5,22	-	-	-	-
Araba/Álava	9.380	36,0	77.912	25,1	8,31	9,03	22,9	2,0	57,9	2,7
Estatukoak	8.590	36,9	63.777	21,5	7,42	8,36	-	-	-	-
Atzeritarrak	790	27,2	14.135	45,0	17,90	15,70	-	-	-	-
Bizkaia	45.851	101,9	120.503	63,9	2,63	3,24	26,3	4,4	44,7	1,1
Estatukoak	36.586	93,1	93.879	64,5	2,57	3,01	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.266	146,4	26.623	61,6	2,87	4,38	-	-	-	-
Gipuzkoa	24.896	56,4	160.810	132,5	6,46	4,35	33,4	8,3	52,7	6,6
Estatukoak	19.416	62,5	118.972	129,5	6,13	4,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.479	38,0	41.838	141,4	7,64	4,37	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2022ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2021eko okupazio-mailak, bai plazen arabera bai apartamentuen arabera, ehuneko 5,5 eta 3,5 puntu handiagoak dira 2020an lortutakoak baino; % 28,1ekoak eta % 51,5ekoak, hurrenez hurren. 2019an –pandemiaren aurretik– jasotako balioak handiagoak izan ziren: plazen arabera okupazio-maila % 32,7koa izan zen, eta apartamentuena, % 63,7koa.

2021eko abendua

Landetxeen jardura berraktibatzen jarraitzen da, aurreko urteko hil beraren aldean. 2021eko abenduan, sarreren urte arteko igoera % 773,2koa izan da, 8.409 guztira. Ostatu-gauak % 795,3 areagotu dira 2021eko abenduan, 2020ko abenduaren aldean, eta 26.412 izan dira guztira.

Euskal AEko landa-ostatu-etako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abendua 2021

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	12 / 2021	m/m-12 (%)	12 / 2021	m/m-12 (%)	12 / 2021	12 / 2020	12 / 2021	p.p. *	12 / 2021	p.p. *
EUSKAL AE	8.409	773,2	26.412	795,3	3,14	3,06	20,5	17,6	23,8	19,4
Estatukoak	7.649	764,3	24.526	786,1	3,21	3,13	-	-	-	-
Atzerritarrak	760	874,4	1.886	936,3	2,48	2,33	-	-	-	-
Araba/Álava	2.155	1.428,4	5.321	933,2	2,47	3,65	16,8	14,8	18,5	15,2
Estatukoak	2.031	1.361,2	5.182	910,1	2,55	3,69	-	-	-	-
Atzerritarrak	124	6.100,0	139	6.850,0	1,12	1,00	-	-	-	-
Bizkaia	2.169	760,7	7.148	778,1	3,30	3,23	19,7	16,8	22,8	17,8
Estatukoak	2.092	972,8	7.008	904,0	3,35	3,58	-	-	-	-
Atzerritarrak	77	35,1	140	20,7	1,82	2,04	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.085	616,7	13.943	760,1	3,41	2,84	22,8	19,7	27,0	22,5
Estatukoak	3.526	539,9	12.336	692,3	3,50	2,83	-	-	-	-
Atzerritarrak	559	2.842,1	1.607	2.410,9	2,87	3,37	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeetan 2021eko abenduan erregistratutako sarreren % 91,0 eta ostatu-gauen % 92,9 estatukoak izan dira. Atzerritar jatorriko pertsonak, urte arteko terminoetan gora egin duten arren, abenduan sarrera guztien % 9,0 eta ostatu-gau guztien % 7,1 baino ez dira izan.

Lurralde historikoen arabera, abenduan urte arteko gehikuntzak bereziki handiak izan dira Araban, 2.155 sarrera eta 5.321 ostatu-gau izan baitira, eta, termino erlatiboetan, % 1.428,4ko eta % 933,2ko hazkuntza, hurrenez hurren. Gipuzkoan eta Bizkaian, sarreretan urte arteko igoera % 616,7koa eta % 760,7koa izan da, 2021eko abenduan; 4.085 eta 2.169 sarrera erregistratu dira, hurrenez hurren. Ostatu-gauak direla eta, Gipuzkoan 13.943 izan dira, 2020ko abenduan baino % 760,1 gehiago, eta, Bizkaian, 7.148, aurreko urteko abenduan baino % 778,1 gehiago.

Euskal AEko batez besteko egonaldia, mota horretako establezimenduetan, 3,14 egunekoa izan da abenduan, 2020ko hil berean izan zen batez besteko 3,06 eguneko egonaldia baino laburragoa, baina 2019ko abenduan erregistratutako 2,37 eguneko egonaldia baino luzeagoa.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte arteko hazkuntza izan dute: ehuneko 17,7 eta 19,4 puntu, hurrenez hurren; plazen arabera % 20,5 eta gelen arabera % 23,8.

Apartamentu turistikoak direla eta, **2021eko abenduan**, sarrerek eta ostatu-gauak honako balio hauek izan dituzte: 7.682 eta 35.202, hurrenez hurren. Aurreko abenduarekin alderatuta, sarreraren gorakada % 245,6koa izan da eta ostatu-gauena, % 115,3koa. Balio horiek 2019ko abendukoekin alderatuz gero, egiaztatzen da hilabete hartako sarreraren % 120,9 eta ostatu-gauen % 159,3 izan zirela.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Abendua 2021

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	12 / 2021	m/m-12 (%)	12 / 2021	m/m-12 (%)	12 / 2021	12 / 2020	12 / 2021	p.p. *	12 / 2021	p.p. *
EUSKAL AE	7.682	245,6	35.202	115,3	4,58	7,36	31,1	13,9	61,4	22,3
Estatukoak	6.034	204,9	25.717	93,0	4,26	6,73	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.648	577,2	9.484	213,3	5,76	12,44	-	-	-	-
Araba/Álava	927	127,7	8.396	60,6	9,06	12,85	26,5	7,6	69,6	16,2
Estatukoak	854	124,7	6.436	47,6	7,54	11,47	-	-	-	-
Atzerriarrak	73	171,0	1.960	125,5	26,78	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	5.113	316,2	11.414	176,4	2,23	3,36	26,8	14,8	40,2	13,9
Estatukoak	3.995	263,0	8.443	149,8	2,11	3,07	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.118	773,6	2.971	296,1	2,66	5,86	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.641	179,7	15.391	120,1	9,38	11,92	39,5	18,3	71,1	31,7
Estatukoak	1.185	137,7	10.838	94,0	9,15	11,21	-	-	-	-
Atzerriarrak	457	416,8	4.554	223,4	9,97	15,94	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Bisitari atzerriarren kopuruak, nahiz eta susperraldi handiagoa izan duten, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta ostatu-gau guztien % 21,45 eta % 26,9 dira, hurrenez hurren. Bi aldagaiek urte arteko hazkunde esanguratsua izan dute, % 577,2koa sarreraren kasuan eta % 213,3koa ostatu-gauen kasuan.

Batez besteko egonaldia 4,58 egunekoa izan da 2021eko abenduan, 2020ko abenduan izandakoa baino laburragoa (7,36 egun), baina 2019ko abenduan erregistratutakoa (3,48 egun) baino luzeagoa.

Lurralde historikoak direla eta, batez besteko egonaldia, 2021eko abenduan, 9,06 egunekoa izan da Araban, eta 9,38 egunekoa Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,23 egunekoa izan da.

Euskal AEren mailan apartamentuko okupazio-maila % 61,4koa izan da; alegia, ehuneko 22,3 puntuko gorakada egon da, 2020ko abenduarekin alderatuta, eta 8,1ekoa, 2019ko abenduarekin alderatuta.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHIaren erantzun-tasa % **73,9**koa izan da, eta apartamentu turistikoena, % **76,4**koa, abenduan.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62